

# ZM

ZORROTZ MORROTZ

35. ZENBILIA 2015eko IRAILA



## KUADRILLAK **Estamos**

SOLO DOS RUEDAS ELKARTEA **Tod@s**

# Allianz

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea  
48013 Zorrotza

Tel. 946551773  
Sakelakoa. 691218922

E-mail: [valerio.merino@allianzmed.es](mailto:valerio.merino@allianzmed.es)



...Imajinatzen duzu auzoa  
merkataritarik gabe?

# ESKAINTZARik ONENA ZORROTZATik IRTEN BARIK

**Berton  
kontsumitu**



**kafetegia  
aLBoka**

Cordelería, 5  
Zorrotza - 48013 BILBAO  
Tfno. 94 499 29 43



**MESON  
OKONDO**

Pintxo askotarikoak  
7etatik, 23etara, zabalik

Zorrotza Kastrexana errep. 8 • Tel: 944 393 766



**ROCKET TAVERN**

Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak... FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

# Barrutien kontseiluetarako hauteskundeak eta Zorrotzako jaiak: gureak eta guk eginak!

Hilabete honetan barrutien kontseiluetarako hauteskundeak dira. Zorrotzako Auzo Elkarteak, 8. barrutiko beste auzo elkarteekin batera, hautagaitza bat osatzen du. Aurreko legegintzaldian egin zen planteamendu bera da hau. Bilboko Auzo Elkarten Federazioak bultzatutako ekimena da, hiriko zortzi barrutietan auzo mugimendua kohesionatzeko asmoz.

Beste aldetik, Zorrotzako jaietaz gozatzeko eta jaietan parte hartzeko deia egin nahi dugu lerro hauetan. Zer esan daiteke gure jaien inguruan?... Ba batez ere, guk eginak eta gureak direla, eta Jai Batzordeak egiten duen lan eta esfortzuak gure babes osoa merezi duela. Beraz, badakizue: poza, parte-hartzea eta batez ere giro ona!

Gora Zorrotzako jaiak!!



## HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

**ZM** zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **“harpidetza”** jarriz



# ZM

## ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria  
35. zenbakia. 2015eko iraila

Argitaratzen du:  
Zorrotzako Euskal Txokoa

**AEK euskaltegia**  
**Zalbidea, 7 behea**  
**48013. Zorrotza. Bilbo**  
Tfnoa: **94 441 49 20**  
**622 61 90 20**

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

**Koordinazioa:**  
Aitor Marín

**Diseinua eta maketazioa:**  
amc diseinua

**Erredakzioa:**  
Ibai Barrios  
Ainara García  
Igor Gutiérrez  
Haizea Olleta  
Aitor Marín  
Iratze Pérez  
Lorna Yáñez

**Zuzenketak:**  
Iñigo

**Laguntzaileak:**  
Karlos Rodríguez  
Santurtziko Irakurzale Kluba

**Inprimaketa:**  
Arin Graf



zurea da fitza  
**euskara**  
no te lo pierdas.



# VIA gráfica

viagraficzorrotza@gmail.com


## DisiNua



**MADNESS KAFETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalbidea estatu, 5 - atzea  
**ZORROTZA**  
48013 BILBO

**MADNES**

Tel. 94 441 62 75



# Pizzeria Jatetxea

**La Viña de Oro**  
Zorrogoiti 1 · 944 994 247

# Umeei zuzendutako hainbat ekintza babestuko ditu jaietan Euskal Txokoak

Zorrotz Morrotz

Urtero bezala, Zorrotzako Euskal Txokoak euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, jaietako egitarauko hainbat ekintza babestuko ditu. Umeei zuzendutako antzerkiak dira babestutako ekintza horitako gehienak, Azoka plazan.

Hasteko, jaietako lehenengo larunbateko eguerdian, Xilipurdi Taldearen "Pepa eta Kutxo ertaroan" antzerki-ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute txikienek. Egurdiko 12:30etik aurrera izango da.

Astelehen arratsaldean, 18etan hain zuzen ere, Imanol Ituño magoaren txanda izango da. "Magia parrastan" antzerkia eskainiko du Ituñok. Horren ostean, 19:30ean, "Berbodromo" izango da bertan: talde txikietan auzoko kontuez solasean aritzeko parada euskaraz. Bukatzeko, Jai Batzordearen txosnatik abiatuko da "Berbapoteoa" azken ostiralean arratsaldeko 19:30ean.

Beraz, jaietan aukera ezinhobea ume zein nagusientzat, Euskal Txokoak babestutako ekintzetan ondo pasatzeko.

## Laguntasuna elkarrekin VIII. Merkataritza Kalean azoka eta III. Pintxo Lehiaketa antolatu ditu

Zorrotz Morrotz

Irailaren 25 eta 26an, Zorrotzako jaietako lehenengo asteburuan hain zuzen ere, VIII. "Merkataritza Kalean" azoka ospatuko da. Laguntasuna elkarrekin antolatu du, eta "udazkeneko denboraldiari begira, auzoko merkataritza bultzatzeko" helburua duela azaltzen du elkarrekin. Horretarako "dendetako salgaiak kalera aterako dira eta bi egun horietan deskontu bereziak egongo dira".

Baina ez da hori Laguntasuna elkarrekin jaietarako prestatu duen ekintza bakarra. Hurrengo asteburuan, auzoko ostalaritza sektorea sustatzeko asmoz, III. Pintxo Txapelketa antolatu dute. Hainbat tabernak hartuko dute parte, bakoitzak pintxo bat lehiaketara aurkeztuz. Bezeroek izango dute epaitzeko lana. Pintxo eskatzean, txartel bat eskuratuko da pintxoak baloratu ahal izateko. Txartela betetzen dutenen artean 3 erosketa-bale zozketatuko da.



### BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estarta 10

**AUPA ATHLETIC**



**Berezitasunak: Txanpiak, Hanburgesa eta sandwich erraldoiak**

ZORROTZA KASTREXANA, 21  
© 944 360 702



**FARMAKOTEGIA  
SUSANA  
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza

Tlfno. 94 441 61 46

# Frontoia estaltzearen aldeko oihua Aste Nagusian



Igor Gutiérrez

Aurtengo Aste Nagusian, Txinbotarrak Zorrotzako konpartsaren txosna gure auzoan pil-pilean dagoen gai batekin jantzi da, alegia, frontoiaren estaltzearena. Inauterietako dinamikari jarraiki, txinbotar konpartsakideek Bilboko Areatzaraino eraman dute aurten gure artean zabaldu den oihua.

Diseinuak txosna bera Zorrotzako frontoitzat hartzen du, euriz gainezka dagoela. Eta hona hemen umorezko puntua: hainbeste ur metatu da non pilotalekuaren ohiko erabiltzaileak

(zestalariek, aizkolariak, dantzariak...) urpean bizitzera moldatu diren. Hori gutxi balitz, itsas espezie anitz nonahi hedatu dira, ekosistema oso bat sortzeraino. Egoera zeharo katastrofi-koa islatzen duen arren, 16 x 8 m-ko aurrealdeari so egitean ezin irribarreari eutsi.

Eszenaren gainetik beharrezko aipamen historikoa ageri da. Frontoia estaliko zutelako lehen hitza 1988an eman zutenetik 27 urte igaro dira, behin eta berrir egindako promesak ur azpian geratu direlarik. Itxi al izango du behin-goz Txinbomikelek bere euritakoa?

 **MESÓN  
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-haztegi propioa  
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
[www.mesonluna.es](http://www.mesonluna.es)

**EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK**



**ibarrera** luxury  
OPTICA

**BLACKGUARD64**



**Zure iritzia jakin nahi dugu.** Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!

## SALAKETA ARGAZKIA



Informazioaren aroan bizi garela esan ohi da. Argibidea ematen duten euskarri asko ikus daitezke kalean: kartelak, seinaleak, sinboloak edonon... Datu asko eta gauzak errazten dizkiguten euskarriak. Baina funtzio hori betetzen ez bada, itsustu eta eragozteko baino ez dute balio seinaleek. Honen adibide argia da Azoka parkeko seinale hau. Hemerotekara jo gabe, ba al dago biragunea noiz egin zen dakien inor? Guk behintzat ez. Hala ere, bere erakuntza iragartzen duen seinaleak (zati bat erori da jada) zutik dirau. Ez al da kentzeko garaia dagoeneko?

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Aurreko aldizkarietan aipatu dugu nola euskarazko hiztegieta "gizon" eta "emakume" hitzen oso erabilera desberdina ematen den bai kopuru zein gizarte-errolen garrantzia konparatuta. Desberdintasun hau batez ere esaldien adibideetan egongo da presente.

Emakundek gaineratzen duenez, Euskal Hiztegiak honako hau ere jasotzen du "gizon" hitzaren azalpenean: "Gizona, adorea eta ausardiaren jabetzat hartua", eta adibide bezala honakoa presentatzen du: "Etorri hona, gizona bazara!"

Gizona terminoak, beraz, adore eta ausardiarekin erlaziozaturak ezaugarri positiboak hartzen ditu, "emakume" hitzari ematen ez zaizkion bitartean.

Emakundek honen aurrean ematen duen proposamena hauxe da: "Etorri hona, ausarta bazara".

Horrela, "gizon" eta "ausardiaren" ekuibalentzia automatikoa baztertzen da eta emakume bati ere erreferentzia egitea ahalbidetzen da.



**ARIN GRAF, S.L.**  
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.  
48013 ZORROTZA - Bilbo  
Tel/Fax: 94 441 38 23  
info@aringraf.com



**Taberna MITOR**

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza  
Tel. 94 482 07 96



**AUTO ESCOLA KAIKU**

Liderra Eskerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1  
Tlfn: 94 427 88 10

# Azoka plaza



Izen honen arrazoa nahiko argia da. Izan ere gaur egun auzoko plaza edo parke nagusia den eremuan, ganadu azokak egiten ziren. Dena den, gaur hainbeste balioesten diren aisialdirako gune berdeak, agian ez ziren hain beharrezkoak, auzoak eta hiriak kotxez beteta ez zeuden garai ez hain urrunetan. Beheko argazkian ikus daitekeen bezala, edozein kale plaza bihurtzerik baitzegoen.



- BAIMEN GUZTIAK
- MATERIA ARRISKUTSUEN GAINEKO IKASTAROAK
- GARRAIOLARIENTZAKO TREBAKUNTZA-IKASTAROAK
- GIDARIEN GAITASUN AGIRIA (GGA)



Astillero, 2  
Tfno. 94 499 25 91  
Zorrotza - 48013 BILBO



Jai-Alai  
kafetegia



Abaro estarta, 12  
94 490 12 59



BAR  
KUPELA

Zorrotza-Kastrexana 4

# “Lan egitera bagatoz, auzoan ongietorriak garelakoan nago”



## HASSAN ELBOUCHI

**Jatorria:** Kenitra (Maroko)

**Noiztik:** 2006ko urritik

**Adina:** 31 urte

**Lanbidea:** Dendaria

Bizi kalitatea hobetu nahian, Zorrotzara heldu zen orain dela zortzi urte Rabatetik hurbil dagoen Kenitra hiritik Hassan Elbouchi. Omega galeriako “Amine Halal” bere dendan egon gara berarekin solasaldian.

tzi hilabete egon nintzen familia batekin Granadan. Ondoren, Zorrotzara etorri eta hemen geratu nintzen.

### Denda ipini zenuen heltzean?

Ez. Euskal Herrira heltzean euskaldun batekin kirol instalazioak montatzen hasi nintzen, kiroldegietan belarra eta eserlekuak ipiniz. Orain dela sei urte, nire kontuz ipini nuen denda hau.

### Nagusia euskalduna izanda, euskaraz zerbait ikasi duzu?

“Kaixo”, “arratsalde on”, “ongi etorri” eta pixkatxo bat gehiago besterik ez. Euskara ikasteko urte asko behar dira...

### Zer eros daiteke zure dendan?

Denetarikoz gauzak. Mundu osoko produktuak ditugu. Haragia nabarmenduko nuke. Jendeak gustukoa du ekartzen dugun haragia. Hiltzerakoan, animaliak odol guztia botatzen du, eta saltzen dugun haragia odolik gabekoa da.

### Zer iruditzen zaizu auzoa?

Oso ondo dago. Auzo langilea da. Garraio lotura onak ditu: autobusa, tren... metroa baino ez zaio falta. Auzo lasaia da, eta horregatik

**Testua:** Lorna Yáñez  
**Argazkiak:** Aitor Marín

### Maroko eta Zorrotza... hain ezberdinak

Bai, han bakoitza bere etxe barruan egoten da. Hemen aldiz, esertzeko terrazak ditugu kalean nonahi. Edozein tokitan tabernak daude. Marokon ordea, erdigunean eremu propio bat dago tabernetarako bizilagunak ez gogaitzeko.

### Zer da Marokotik gehien duzuna faltan?

Aita eta ama. Familia, noski.

### Eta zerk ekarri zintuen Zorrotzara?

Lana. Gehien bat, bizi kalitatea hobetu nahi nuen. Marokon lan aukera gutxi zegoen eta lan bila etorri nintzen hona.

### Marokon zer ikasi zenuen?

Batxiler zientifikoa egin nuen, baina esan bezala, lana topatzeko aukera gutxi zegoen. Zor-



jende asko dator hona. Lan egitera bagatoz, auzoan ongietorriak garelakoan nago. Baina beste batzuk lapurtzera etorri dira eta horrek ez du balio.

### Lapurrak edonon egon daitezke, baina agintariek "marokiari delinkuentzia" deitukoaz ari zara, ezta?

Bai. Ez soilik marokiarra, Algeriakoak dira batzuk. Oso gazte etortzen dira hona, 10-13 urterekin eta oraindik ez dakite zer dagoen ondo eta zer gaizki; dena aurrera. Gurasoek ez dakite zertan ari diren, eta guztiok saku berean sartzen gaituzte. Hona gure bizi kalitatea hobetzera etorri gara, ez besteak izorratzera. Umeen zentroetako arduradunei mezua eman nahiko nieke. Hezitzaileek jakin behar dute ume hoiak egiten dutena. Jarraitu behar dute. Dirurik ez badute, diruzorroak lapurtzera joango dira. Leku guztietan gertatzen da horrela, baita Marokon ere. Ume haiek ez dute heziketarik. Gaueko hamarretan sartzen dira zentrora, nire ustez, beranduegi.

### Zer proposatzen duzu?

Diziplina. Denbora eta disziplina. Muga non dagoen jakin behar dute. Arauak jarri behar zaizkie eta besteok bezala, bete behar dituzte. Ez dezatela pentsa hori diktadore izatea denik. Hemen gazteei askatasun gehiegi ematen zaizkie. Giza eskubide bat da hezkuntza. Eta hori ez da diktadore izatea. Soka soltea utzi behar zaize baina batzuetan lotu ere egin behar dira. Nire etxean hamar anai-arreba ginen, eta denok ikasi dugu batxilergoa arte. Aita zazpitan etortzen zen, ordurako etxean ez zegoena, kanpoan geratzen zen.



### Zer moduz moldatu zara auzoan?

Oso ondo. Auzoko jende asko agurtzen dut, leku askotarikoak. Jendea ezagutzen dut haien semeei arabiar izena ipini diena.

### Azken hilabeteetan pintadak agertu ziren etorkinen kontra. Erasoren bat jasotzearen beldur zara?

Ez, oso harreman ona dut hemengo jendearekin eta ez dut arazorik izan nahi. Noizbait adin nagusiko batzuekin istiluren bat... baina tira, haiek ere beste hiri batzuetakoak dira!



## Taramona

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12

## Regalos Omega

*oparidenda*

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza  
94 482 03 66

[www.omegadetalle.es.com](http://www.omegadetalle.es.com)



## SOLO DOS RUEDAS

# Gustuko ibilgailuan, aldaparik ez



Motorrean ibiltzea gustuko izateak elkartzen zuen lagun talde txiki bat igandero elkartzeari ekitean hasi zen talde honen historia 2008an. Gaur egun, 16 bazkide du elkarteak, egoitza zabaldu berri dute auzoan eta berriki ospatu dute urteroko elkarretaratzea, taldeko laugarrena.



**Testua:** Iratze Pérez  
**Argazkiak:** Aitor Marín

Bizkaiian, 30 bat motor talde daude eta gure auzoan badaukagu gurea: Sólo dos ruedas. 2008an hasi zen talde honen historia: ibilbide desberdinak konpainiaz esploratu nahian, motorrean ibiltzea gustuko izateak elkartzen zituen lagun eta ezagun talde txiki bat igandero geratzen hasi zirenean. Horrela, egun erdiko edo osoko irteerak egiten denbora pasatu eta taldekatat identifikatzen hasi ziren, bai laguntasunean zein fisikoki, logo berri baten asmatetaren bitartez.

Motorra eta motorzaleen inguruan dauden estereotipoak apurtu eta Zorrotzako auzoarekin bat egiten nahian, 2013an, kultura-elkar-

te bezala inskribatu ziren. Hala ere, ordurako Zorrotzako auzoan aski ezagunak ziren jadanik: Elikagai-Bankuko boluntario bezala, Errege Magoen akonpainamenduan zein STOP San Filippo fundazioarekin diru bilketan parte hartzeagatik. Gaur egun, auzoko talde sendo kontsideratzen da, oso aktiboak eta ikusgarriak baitira. Bazkide gehienak Zorrotzako gure auzokideak dira, baina hurbileko leku askotako kideak ere badaude. Aurten, Zorrotza-Kastrexana kalean egoitza ireki dute, taberna eta biltzeko lekua izanda.

Orain arte, 4 motor elkarretaratze egin dituzte: 2012 eta 2013an Zorrotzako Jaietako bigarren larunbatetan eta 2014 eta 2015-ean irailaren bigarren larunbatetan aurrera eginda. Zorionez, Zorrotzako jendeak harrera oso ona

egin die ekitaldiei eta aurten ere arrakasta handiz ospatu dute.

Motor elkarretaratzeak, Zorrotzako auzokide guztiontzako aktibitatez planteatzen dituzte eta Zorrotza Laguntasuna Merkatarri Elkartearen eta bazkideen ekarpen ekonomikoei esker festa badoa aurrera. Egin beharreko gastuak (edaria, erosketak, aseguruak ...) ahal duten heinean ere auzoan egiten saiatzen dira.

### **Ibilaldiak astero**

Gaur egun, igandero 9:30ak aldera hiltegiako biribilgunean geratu eta 200 bat kilometro egiten dituzte, Burgos, Kantabria edo Errioxako leku desberdinak ezagutzuz. Ibilbidea beraiekin egiteko aukera badago, motorra edukitzea eta markatutako arauak errespetatzea baldintza bakarrak izanda.


Euskal Herria eta estatu mailako motor elkarretaratze askotan hartzen dute parte, orain arte hain famatua izan den "Pingüinos" barne. Hala ere, proiektio internazionala ere badaukate eta atzerriko hainbat herrialdetan ibiliak izan dira: Suitzan, Alemanian, Kroazian, Portugalen, Frantzian...

125cc. baino potentzia handiagoa duen motorra eta 18tik gorako urte dauzkan edonork egin dezake talderako sarrera eskaera. Moldatze denboraldi bat pasatu ostean, bazkide guztien artean bozkatuko da bere onarpena. Hori bai, ezinbestekoa izango da bai taldearen arauak zein zirkulazio arauak beti errespetatzea.



**Bazkide gehienak Zorrotzako bizilagunak dira, baina hurbileko leku askotako kideak ere badaude**

**Ibilbidea beraiekin egiteko aukera badago, motorra edukitzea eta markatutako arauak errespetatzea baldintza bakarrak izanda**



**”la Caixa”**

***Zeu zara  
izarra***

Abaro estarta, 5  
48013 Zorrotza (Bilbo)  
Tel. 94 459 00 90

[www.lacaixa.es](http://www.lacaixa.es)

## ZORROTZAKO KUADRILLAK

# Festarako prest!



Zaila egiten zaigu barrakarrik, txosnarik, kontzerturik edota berbenarik gabe imajinatzea; baina are zailagoa da jaiak jenderik gabe irudikatzea: kuadrillarik gabe. 2011n estreinakoz ospatu zen Koadrila Txapelketa Zorrotzako jaietan, eta urtez urte, talde gehiago parte hartzera animatu dira. Iaz lehiatu ziren zazpi taldeekin egon gara eta hona hemen emaitza, talde beteroenetatik hasita, berrieneraino.

Testua: Aitor Marín / Argazkiak: Zorrotzako koadrilak



## ARDO GORRIAK

**Sortze data:** 2004  
**Lagun kopurua:** 20  
**Batez besteko adina:** 31 urte  
**Jantziak:**  
 Kamiseta gorria eta sudadera beltza



## “Ardozale eta gorriak”

### **Izenari kasu eginez, txikiteoa gustuko ezta? Edo zergatik Ardo Gorriak?**

Parrandan ateratzen hasi ginenean, askotan, ardotan ibiltzeko baino ez zuen ematen geneukan diruak, eta antza, arraroa zen gu bezalako gazteak ardotan ikustea... Ardozale ospea hartu genuen, Negu Gorriak taldea gustuko genuen eta “gorriak” izan gara beti. Gainera, auzoan ez zegoen kolore gorria erabiltzen zuen kuadrillarik.

### **Jaietan zuekin topa egiteko nora jo behar da?**

Txosnagune eta tabernetan poteoan murgiltzen gara gehien bat.

### **Zer da jaietako gehien gustatzen zaizuen? Zein da egunik edo unerik bereziena?**

Auzotarron partehartzea, nahiz eta handiagoa izan litekeela uste dugu. Guretzat oso berezia da lehenengo eguna. Koadrillen jaietsiera gehien lantzen dugun ekintza izaten da. Gainera, egun horretan, kuadrillako afaria izaten dugu, eta kide gehien biltzen garen eguna izaten da.

### **Eta gutxien gustatzen zaizuen? Nola hobetu jaiak?**

Lehen aipatu bezala, zenbait ekintzatan izaten den partehartze urria. Ezin ahaztu, udalaren jarrera jai herrikoien aurka. Lagundu beharrean oztokatzen baititu auzoetako jaiak. Horregatik, denon laguntza beharrezkoa dela uste dugu,

bakoitzak ahal duen heinean. Salbuespenak egon arren, txalotu egin behar da dendari eta tabernarien laguntza, eta batez ere, Jai Bartzordearen lana jaiak aurrera eraman ahal izateko.

### **Jaietako ekintzetan parte hartzen duzue, edo bakarrik kuadrilla lehiaketetan?**

Saiatzen gara ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzen, lehiaketakoak izan ala ez, baina batzuetan ezinezkoa da. Ekintza anitz daude, Eta batzuk, goizean goiz!! kar, kar!!

### **Nola baloratzen duzue kuadrilla lehiaketa?**

Oso ondo. Gazteon arteko partehartzea handitu dela nabaritu dugu. Lehiaketan, giro ona sortzea da guo helburu bakarra. Ez soilik koadrillen artekoa, baizik eta auzo mailan. Jendeak ondo pasatzen dugula sumatzea nahi dugu. Adibidez, jaietsieran beti karroza ikusgarria asmatzen saiatzen gara. Gogoratzen dugu, txikitan koadrilla oso bat kotxe zahar batean jaisten zela... Guk hori ikustean, beti esaten genuen “horiek bezain ondo pasatu nahi dugu guk jaietan”. Horrelakorik sortzen badugu gaur egungo umeengan, lehiaketa irabaztea baino sari hobea da.

### **Jaietaz aparte, beste zenbait ekintzatan hartzen duzue parte urtean zehar?**

Koadrillako kide asko herri mugimenduan murgilduta daude. Kultur ekintza gehienetan parte hartzen dugu, baina ez kuadrilla gisa.



## DOMINIS PETRUM

**Sortze data:** 2011  
**Lagun kopurua:** 10  
**Batez besteko adina:** 30 urte  
**Jantziak:**  
 Kamiseta beltza eta peto laranja

# “Petra” izenak jaia, lankidetza, giro ona, elkarlaguntza... adierazten du

## **Nolako da zuen kuadrilla? Zein da izen honen zergatia?**

Gure kuadrillaren kideak 10 emakume dira, nahiz eta gehienetan norberaren mutil lagunak eta beste lagun batzuek parte hartu. “Dominis Petrum” da gure kuadrillaren izena eta “Petra” izeneko pampinean oinarritzen da. “Petra” guretzat jaia, lankidetza, giro ona, elkarlaguntza... adierazten duen sinboloa da. Horrexegatik, “Dominis Petrum” izena.

## **Zer egiten duzue ondo pasatzeko jaietan? Nondik murgiltzen zarete?**

Jai Batzordeak eta “Gure Lurra” taldeak auzoan proposatutako ekintza gehienetan parte hartzen saiatzen gara, auzoko giroa eta taldeen arteko harremanak sustatzeko. Proposatutako ekintza horien artean, jolas, tabernetatik egindako poteo, lehiaketa, kontzertu, erromeria eta abarretan parte hartzen dugu.

## **Zer da zuentzat jaietako garrantzitsuena eta gustukoena? Baduzue unerik kuttunena?**

Zorrotzako jaiak oso bereziak dira guretzat, talde osoa elkartzen garelako. Hortaz, gogoko duguna horixe da batez ere. Gustuko dugun egun bat hautatzekotan, jaien lehenengo eguna izango litzateke.

## **Eta programari kasu eginez, dena duzue gustuko edo zer edo zer hobetu daiteke?**

Antolatzen diren ekintzak jarraian egiten dira. Atsedena hartzeko astirik ia ez dugu!

## **Jai Batzordeak antolatutako ekintzetan parte hartzen duzue, edo bakarrik koadrila lahiaketan?**

Bietan hartzen dugu parte.

## **Koadrilla lehiaketa nola baloratzen duzue?**

Idea itzela dela uste dugu, kuadrillen arteko erlazioa estutzeko aukera ematen digulako eta giro ezin hobea sortarazten duelako.

## **Jaietz gain, beste zenbait ekintzatan hartzen duzue parte auzoan?**

Bai, Txinbotarrak konpartsarekin eta txinbatu-kadarekin hainbat ekintza egiten ditugu.

## **Eta urtean zehar ere, parrandan ateratzen zarete? Nondik?**

Ostiralero lagunekin auzoko tabernetatik edota Billboko Pozas, Alde Zaharreko kaleetan poteatzera irteten gara. Bestalde, asteburu askotan, jai herrikoietatik mugitzen gara, nahiz eta gero eta gutxiagotan irten, orain beste ekintza mota batzuk egitea gustuko dugulako.

## EUSKOPETAK

**Sortze data:** 2011  
**Lagun kopurua:** 40  
**Batez besteko adina:** 27 urte  
**Jantziak:**  
Kamiseta berdea



# “Lehiaketa egiten hasi zenetik, hobeto gozaten ditugu jaiak”

## **Euskopetak kuadrilla. Gerrarako prest? Azaldu izenaren arrazoia:**

Kide askodun kuadrilla garenez ez ginen ados jartzen izena zehazteko momentuan, beraz, ideia batzuk nahastuz “Euskopetak” atera zen. Barregarria iruditu zitzaigunez eta beste ideiarik ez geneukanez horrela geratu zen.

## **Zer egiten duzue jaietan primeran pasatze-ko?**

Azoka plazan eta txosnetan egoten gara normalean. Txosnetan edo tabernetan pixka bat poteatzen dugu, eta gero Azoka plazan egoten gara normalean.

## **Kuadrilla lehiaketa behin baino gehiagotan irabazi duzue. Gustukoa duzue lehiaketa? Beste ekintzetan parte hartzeko denbora ere baduzue?**

Gure kuadrillan Jai Batzordeko kideak ere badaude, beraz, normalean antolatzen diren ekintza gehienetan parte hartzen dugu. Lehiaketa oso modu positiboan baloratzen dugu. Kuadrillen arteko lehiaketa hasi zenetik jaiak askoz hobeto bizitzen ditugu. Lehen jaietako astea baino ez genuen disfrutatzen. Orain irailaren hasieratik batzen gara jaietsiera antolatuta eta prestatzeko.

## **Zer da jaietan gehien gustatzen zaizuen? Eta egunik edo unerik gustukoena?**

Gehien gustatzen zaiguna kuadrillen arteko lehiaketa izaten da eta unerik gustukoena lehenengo eguneko jaietsiera, tortillen lehiaketa, kuadrillen geroko afaria eta, nola ez, txosnetako gaueko giroa.

## **Eta gutxien gustatzen zaizuen? Zer edo zer aldatuko zenukete?**

Auzoan kuadrilla pila bat egon arren, askok ez dute parte hartzen. Partehartzea handituko genuke. Bestalde, kuadrilla bakoitzak maskota bat izatea proposatzen dugu hemendik.

## **Eta jaietz aparte, auzoan beste zenbait ekintzetan hartzen duzue parte?**

Bai. Zorrotza egunean paella egiten dugu. Antolatuta zen lehenengo “poteojasotzailean” ere egon ginen, baita urtarrilaren 5ean egiten diren jai antimonarkikoetan ere...

## **Jaiak amaitu eta gero, urtean parrandan ibiltzeko indarrrik geratzen al da?**

Bai, normalean hainbat auzo eta herritako jaietara joaten gara, Biboko Alde Zaharrean askotan mugitzen gara neguan eta auzoan askotan geratzen gara poteatzen.



## KALIMOTXO

**Sortze data:** 2012  
**Lagun kopurua:** 30  
**Batez besteko adina:**  
 23 urte  
**Jantziak:** Kamiseta  
 gorria eta jertse beltza



# “Zorrotzan ospatzen diren ekintza guztietan parte hartzen dugu”

## **Kalimotxo taldea. Azalpenik behar da?**

Euskal Herrian, jaietan, kalimotxoa edatea ohikoa denez, keinu bat egin nahi genien gure “ohitura zaharrei”. Honek ez du esan nahi jaiak alkoholaren inguruan biratu behar dutenik... Data berezia da, eta kalean katxi bat kalimotxo eskuan lasai ibil daiteke. Ohiko kuadrilla gara, zorrotzarrak guztiok. 30 pertsona inguru izateak bere alde onak eta txarrak ditu. Zaila da ados jartzea, baina behin akordio batera helduta, eskurik ez da falta edozertarako. Eta benetan gustatzen zaiguna, une horretatik ibili beharreko bidea da. Kuadrillaren giroaz gozatzea adostutako helburua lortu arte.

## **Jaietan, non mugitzen da Kalimotxo taldea?**

Auzotik zehar. Barraketan, poteoan... Azken txosna itxi eta gosaltzeko lehenengo taberna irekitzen dugu... Urtero, azkeneko larunbatean izaten dugun kuadrilletako afariak aparte, gure kabuz beste bat antolatzen dugu auzoko taberna batean, non gure pregoi eta txupin pribatuak botatzen ditugun!

## **Noiz da jaietako unerik kuttunena?**

Lehenengo ostirala. Jaitsierako gaia ezkutuan prestatzea aste askotako lana da. Egin dugun lana auzoari egun horretan erakusteko eta gustukoa izan dutela nabaritzeak, poza eta harrotasuna sortarazten digute.

## **Zer edo zer aldatuko zenukete?**

Oro har pozik gaude egitarauarekin. Jai guztien atzean, ikusten eta baloratzen ez den lan pertsonal ugari dago, eta eskertzekoa da. Zorrotzarron harremanak sendotzeko ekitaldiak antolatzea mesedegarria da guztiontzat.

## **Kuadrilla lehiaketa nola baloratzen duzue?**

Iaz azken proban galdu genuen lehiaketa. Beraz oraindik arantzatxo hori sartuta dugu... 2015eko kuadrilla irabazlea izanda balorazioa hobea izango da!

## **Kuadrilla lehiaketaz gain, zertan gehiagotan hartzen duzue parte?**

Ekintza guztietan parte hartzen dugu. Auzorako komenigarria da. Jende eta kuadrilla gehiagoren parte hartzea behar da, Zorrotzako jaiak ospetsuagoak eta hobeaak izan daitezen.

## **Eta jaietz gain, beste edozein ekintza gehiagotan ere?**

Bai, noski. Zorrotzako inauteria gorritz markatuta dugu egutegian. Zorrotza egunean ere paella egiten dugu...

## **Eta urtean, parranda gehiagotarako tarterik al dago?**

Hibernatu egiten dugu hurrengo Aste Nagusira arte. Oso aste gorrak izaten omen dira...





## LA MANADA

**Sortze data:** 2013

**Lagun kopurua:** Batek daki

**Batez besteko adina:** 28 urte

**Jantziak:**

Kamiseta, sudadera eta tanga moreak



# “Kuadrilla anarkikoa da gurea”

## **Azaldu nolakoa den zuen kuadrilla:**

Hitz bakar batez: anarkikoa.

## **Zergatik “La Manada”?**

Hasiera baten “La mamada” aukeratu genuen, baina kamisetak inprimatzean okertu ziren eta “La manada” jarri zigutenez, izen hori hartzea erabaki genuen, merkeagoa baitzen.

## **Jaietan, non murgiltzen zarete? Zeintzuk dira zuen “ohiturak”?**

Txosnetan eta gure babeslearen tabernan, “1 de Agosto”, (erantzun honi esker erronda bat daukagu musutruk) Gure ohiturak jaietan? Hauek: astelehenean, Begoñako Ama Birjinari lore eskaintza egiten diogu; asteartean, ospitaleko umeei bisita eta jostailu eskaintza egiten diegu; asteazkenean, odol eta esperma dohaintza egiten dugu; ostegunean, agureak errepidea gurutzatzen laguntzen ditugu, haiek nahi ta nahiez; ostiralean: dutxa hartzen dugu, galtzontziloak aldatu eta parranda; larunbatean, parranda; igandean, bizi-konstanteak mantendu behar dira. Badakizue, arnastu, digestioa egin...

## **Zer da jaietako gehien gustatzen zaizuen?**

Jendea eta kuadrillen arteko giro ona eta batez ere, Gure Lurra txosnako neskak.

## **Egitarauan, zer aldatuko zenukete?**

Kontzertuak. Neska politak etorri beharrean punkiak datozelako.

## **Jai Batzordeak antolatutako ekintzetan parte hartzen duzue, edo bakarrik kuadrilla lehiaketan?**

Bai, eskerrak eman nahi dizkiegu jaiak osotasunean bizi beharrean, lanean dihardutenei guztiok hobeto goza ditzagun... Eta baita 1 de Agosto tabernari ere, gure bizitzak pozteagatik. Beste erronda bat!!!

## **Zer deritzozue kuadrilla lehiaketari?**

Ondo dago. Jaieti saltsa ematen die eta kuadrilla ezberdinetako kideak batu eta ezaguturazten ditu.

## **Jaiez aparte, beste zenbait ekintzetan hartzen duzue parte urtean zehar auzoan?**

Ez, urte osoa kuadrilla lehiaketa prestatzen ematen dugulako, behartsuei laguntzarekin batera.

## **Auzoan jairik ez dagoenenan, parrandan ateratzen zarete? Nondik?**

Bilbon, jai herrikoietan eta... 1 de Agosto tabernan, garagardoa preziorik onenean eta giro atsegina baitaude.



## SABIOS HOOLS

**Sortze data:** 2014  
**Lagun kopurua:** 24  
**Batez besteko adina:** 19 urte  
**Jantziak:**  
 Kamiseta beltza



# “Batez ere, kontzertuak eta txosnetan ibiltzea gustatzen zaigu”

### Jakintsuak omen zarete? Zertan ba?

Kuadrillaren izena broma batetik dator, jakintsuak ginela esatea gustatzen zitzaigun eta hala esaten genion gure buruari brometan... Azkenean taldearen izena hala geratu zen. 18-20 urte bitarteko gazteak gara, eta nahiko normalak garelakoan gaude. Parrandan irtetea gustatzen zaigu eta batez ere ondo pasatzea. Urtean, lokalean ematen dugu denbora pila bat, futbola ikusten, kartetan jolasten, musika entzuten edo besterik gabe, hitz egiten.

### Zelan gozatzen duzue jaietaz?

Ekintzetan parte hartuz, kuadrilla lehiaketa tar-teko, poteatuz, eta batez ere, txosnetan eta kontzertuetan ibiltzea gustatzen zaigu. Parranda egiten dugun bitartean auzoko giroa sustatzea da gure helburu nagusia.

### Iaz lehendabizikoz kuadrilla lehiaketan izena eman zenuten. Horrez gain, beste ekintzetan murgiltzera animatzen zarete Zorrotzako jaietan?

Pasa den urtean kuadrilla lehiaketan soilik hartu genuen parte, baina aurrean txapelketa gastronomikoetan ere parte hartzea gustatu-kito litzaiguke.

### Zer da Zorrotzako jaietatik gehien gustatzen zaizuen?

Txosnetan giro itzela dago eta kuadrillen artean lehia polita sortzen da. Giroa eta kuadrilla lehiaketa dira beraz gehien gustatzen zaizkigun gauzak.

### Eta ba al dago gustatzen ez zaizuen zer edo zer. Nola hobetuko zenukete programa?

Sarritan kontzertuetan dagoen maila eskasa. Uste dugu hori hobetzea ondo legokeela eta ondo etorriko litzaiekeela jaietara. Hobetu beharreko gauzei dagokienez, aipatutakoaz gain, euskarararen erabilera aipatuko genuke, gehiago erabili behar dela uste baitugu.

### Jaietan ez ezik auzoko ekintzetan ere parte hartzen animatzen zarete?

Zorrotzako ekintzetan ez dugu parte handirik hartzen kuadrilla bezala, nahiz eta kuadrillako batzuk bai animatzen garen.

### Behin jaiak amaituta, zer egiten duzue? Parrandari eusten zaio astebururo?

Parrandan irtetzea gustatzen zaigu, eta baita poteatzea ere. Gehienbat Bilbo aldean ibiltzen gara esan daiteke, eta nola ez, herrietako jai herrikoietan.



**E.T.B.**

**Sortze data:** 2014

**Lagun kopurua:** 15 heldu  
(umeak ere badaude)

**Batez besteko adina:** 40 urte  
baino gehiagoko gazteak

**Jantziak:** Kamiseta beltza

**E stamos  
T od@  
B uen@s**

## “Umeein jaitsieran ondo pasatzea zen hasierako asmoa”

### **Nola sortu zen kuadrilla sortzeko ideia?**

Umeein jaitsieran ondo pasatzeko asmoz, kuadrillaren kamiseta asmatu genuen. Bego gure kapitainak, Kuadrilla lehiaketan parte hartzera animatu gintuen eta hemen gaude! Ondo pasatzea helburu bakarra duen auzoko jendea gara. Gure parte hartzearekin jaiak pixka bat gehiago animatzen lortzen bada, ba askoz hobeto.

### **Non murgiltzen zarete jaietan?**

Kuadrilla lehiaketaren ekintzen arabera batez ere, hor izaten baita guztiok batzen garen uea. Horretaz aparte, umeein barraka-guenean gehienbat.

### **Nola baloratzen duzue kuadrilla lehiaketa?**

Oso ondo. Ederra da.

### **Beste ekintzetan ere hartzen duzue parte?**

Kuadrilla gisa, bakarrik lehiaketan. Beste ekintzetan parte hartzen dugu taldeka edo bakoitzak bere kabuz.

### **Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuena?**

#### **Zein da zuentzat unerik bereziena?**

Kuadrilla lehiaketako rally-poteoan ederki pasatu genuen. Probak, musika, garagardoren bat edo beste...

### **Eta gutxien gustatzen zaizuena? Zer alda daiteke jaiak hobetzeko?**

Eztabaida izan ondoren, berbenen musika esango dugu. Zaharkituak gara eta dantzatzea gustukoa dugu... Baina iaz Def con Dos taldearekin gozatu genuenok ere bagaude taldean!

### **Jaietaz aparte, beste zenbait ekintzatan hartzen duzue parte urtean?**

Kuadrilla gisa ez, ez baikara kuadrilla arrunta. Guraso talde bat gara. Ikastetxeko sarreran ikusten dugu elkar gehienbat.

### **Urtean, aisialdia auzoan ematen duzue?**

Bai, auzoan oso giro ona dago, batez ere igande eguerdian.

*Dantzari*  
Camino Forrozgati 1,  
94 612 93 85

  
*drinks*

  
*txalo*

  
*music*

  
*masa*

## Oilasko errea



**Osagaiak:** Oilasko garbi bat, gatza, piperbeltza, ardo zuria, ura eta garagardoa.

Labea 180 gradutan aurreberotzen da. Oilaskoari gatza eta piperra botatzen zaizkio, eta litro laurden ur, litro laurden ardo zuri eta litro erdi garagardo osatutako nahasketa batekin sueztitu behar da hamar minuturo, lehortzen utzi gabe, ordu eta erdiz. Denbora hori igarota, labea amatatuko dugu eta 10 minutuz jalkitzen utziko dugu. Zaituta eta herriko piperrekin eta patata frijituekin batera zerbitzatzea gomendatzen dugu.

<b>Zailtasun maila</b>	Ertaina
<b>Prezioa</b>	9 euro

## ROCKET TAVERN

2010. urtean Felisa taberna mitikoak atek itxi ondoren, Rocket Tavern berria hartzen du bere lekua. Giro gazte eta berrituarekin, aukera gastronomiko anitz eskaintzen ditu. Goiz goizetik pintxo ugariaren artean aukera daiteke gosari on bat egiteko. Bazkalorduan berriz, eguneko menua eskaintzen da. Bost lehenengo plater eta beste bost bigarrenaukan. Hori gutxi balitz, hanburgesak, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak...

### **Ordutegia:**

Astelehenetik ostegunera:

6:00etatik 23:30era

Ostiral eta larunbatetan:

7:00etatik 1:00era

Igandeetan:

7:00etatik 23:30era

*Rocket tavern*

**Frai Juan, 8**

**Tel. 94 655 68 98**




Iragar zaitez

# ZM

ZORROTZ MORROTZ  
aldizkarian!

Euskara sustatu  
Zorrotzan!



Tarifak eta informazioa: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

# Restaurante Arsenio

Tfno. 94 497 10 03  
Hermógenes Rojo, 6  
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak  
Menu bereziak (entzarque)  
Eguneko menua

## ARIN GRAF INPRENTA



1993. urtean **ARIN GRAF** inprentak bere ibilbidea hasi zuen Zorrotzan, Patxi eta Andrésen eskutik. Enpresa pribatuaren mundutik zetozen bi profesional handiak eta arte grafikoen munduan eskarmentu handiarekin.

Lehen momentutik, katalogo, liburuxka, kartel, papertegi eta publizitate orokorrean espezializatu ziren, une hartatik haien leloa “bezeroari ondo aholkatu preziorik onenean” izanda.

*Arin Graf.*

**Zalbidea estarta 13, 2.**  
**(eraikin industriala)**  
**Tlfnoa. 94 441 38 23**



## Gerra txikia

Lander Garro. Susa. 2014



Errefuxiatua da Xabi Ugarteren aita. Hiru seme-alabak trenean sartu ditu amak 1983ko urriko goiz batean eta, muga igaroz, aitarengana joan dira Hendaiara, zalantzez beteta, ohiz besteko lekuan bizi beharko dutelako aurrerantzean, baina oraindik ohartu gabe gerra giroa datorrela etxeraino. GAL garaia da, zelatan daude mertzenarioak, eta laster

gertatuko dira atentatuak, hilketak, atxiloketak, deportazioak... Haur izatearen xalotasunak, ordea, munduari begiratzeko aldarte berezia ematen dio Xabi txikiari, eta une zailenetan ere beti saiatzen da atsegin edo probetxuren bat topatzen: lagun berriak, hondartzako egunak, etxera datozen iheslariak, Tour-eko karrera, lehen musua...

Garroren azken eleberrri honetan bi plano daude la esan daiteke: Euskal Herriko historiaren pasarte gazi-gozoak, batetik; Xabiren bidaiia intimoa, bestetik. Bi plano horiek ezin hobeto uztartzea lortu du egileak, eta istorio hunkigarri bezain mikatza eskaini digu.



## Huts

Barne

Autoekoiztua. 2015



2013an Trapagaranen sortutako talde gaztea dugu honako hau. Duela gutxi 5 abestiz osatutako maketa argitaratu dute, beraiek autoekoiztua. Estilo aldetik metala eta punk-rocka uztartzen dute. Iraupen gutxiko lehehengo lan honetan, melodia da nagusi

(batez ere abeslariaren ahots tinbreagatik) eta gai personal zein sozialak jorratzen dituzte. Momentuz bi kontzertu baino ez dituzte eman baina maketa honekin ahalik eta esparru gehienetara iristeko asmoa dute.

Produkzio eta abestien estruktura aldetik nabari da talde hasiberria dela. Kontuan hartu behar dugu euren lehehengo esperientzia dela musika mundu honetan baina halere gogo handiz dabilta hain zaila den eszena honetan euren lekua egiteko. Euren abestiak Soundcloud plataforma digitalaren bitartez entzun ditzakezue. Facebooken ere orrialdea daukate. Egon adi eta entzun!!

# Gazteentzat ekintzez betetako kurtsoa Gure Lurraren eskutik



Deskantsurako hilabete bat izan dugula, lanera itzuli gara, betiko indar eta gogoekin. Kurtso berri bati hasiera emateko une honetan, urduri egoten gara datozkigun proiektu eta ekintza guztiak antolatuta eta auzorako garen garapen baliabide hau modu onenenean kudeatzeko lan astuna egiteko irrikaz.

Gure Lurra Partaidetza eta Komunitate-Garapen Elkartek kudeatzen dituen aisialdi zentroak Auzoko jaien ondoren hasiko da bazkide izateko informazioa zabaltzen. Urtero bezala, ekintza desberdinez osatutako kurtsoa prestatzen ari gara, 2004 -2010 jaiotako neska-mutilei zuzenduta. Urria izango da kurtso berriari hasiera emateko data; horretarako, ekintza berezi bat antolatuko dugu auzotar guztiak eta bereziki haurrek gure proiektua ezagutu eta izena emateko orria eskuratu dezaten.


2015-2016 kurtso honetan, auzorako proiektu iraunkorrak bihurtu diren Haurgune/ Kidegune eta Gazteguneko esku-hartzearekin ere jarraituko dugu:

Haurrei zuzendutako **Haurgune eta Kideguneak** urrian zabalduko dituzte ateak. Udalaren izena emateko epeak, aldiz, irailan izaten dira; hala ere, urriaren 5etik aurrera hutsik geratu diren lekuak betetzeko aukera izango duzue. Haurguneak 2007tik 2010era jaiotako haurrentzat egokituak daude eta bertan astelehen, astearte, asteazken edo ostegunetan parte hartu dezakete.

**Kideguneak** berriz 2004tik 2006ra jaiotako neska-mutilei zuzenduta daude eta izena ematekoan ostiral edo larunbatetan parte hartzeko aukeren artean hautatu behar da.

Auzoko **Gaztegunek** ere urrian zabalduko ditu ateak; hauetan, izena emateko epea kurtso osora zabalitzen da, 12 eta 17 urte bitarteko gazteak bertara hurbildu eta hezitzaileek azalduko dizkiete zeintzuk diren bertan parte hartzeko eman behar diren urratsak. Noiz daude zabalik? Urritik maiatzera, asteartetik ostiralera: 17:00-20:00. Eta larunbatetan: 17:00-20:30. Ekainean berriz asteartetik ostiralera: 17:00-20:00.

Aitzakiarik ez duzu, parte hartu gurekin!



*seruena  
piztu!!*

**amc**  
diseinua

**Diseinu grafiko**  
irudi korporatibo • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak, Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

[www.amcdiseinua.net](http://www.amcdiseinua.net)

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**



### Ainize

Txikitan barraketa eta orain kontzertuak. Kanpoko jende gehiago, Bilboko edo beste herrietako jendea animatzea falta da.



### Irati eta Jessica

Auzoan dagoen giroa eta barrakak. Ez, oso ondo daude.

## Zorrotzako jaiak:

Zer da gehien gustatzen zaizuna?  
Zer hobetuko zenuke?

Haizea Olleta



### Rubén

Dagoen giroa eta jendea, ezin hobea delako. Ez, Jai Batzordearen eta besteen laguntasunaren artean jaiak ondo ateratzen dira eta pixkanaka-pixkanaka gora joango gara.



### Enrique

Kalean dagoen giroa. Kuadrillen jaitziera, umeen moztarrok... Auzoarentzat oso ondo daude.



### Beatriz

Lehiaketa gastronomikoak, bazkari herrikoia eta umeentzako pailazoak. Ez dakit... Oro har ondo daude, ezta??

## cafetxinbo


Espezialitateak:

Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estarta, 10  
Tel. 94 608 85 74

independentzia!  
SOZIALISMOA!



# ASKABIDE

kultur elkarte  
zorrotza

ITZULERA GOGOAN,  
TAUPADEN ARRAZOIA



Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648  
askabidezorrotza@gmail.com

# ERABILI EUSKARA BILBON



WWW.DARABILBO.EUS////////AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOHAINIK

